

## Alemania izan edo ez

ZIABELAR HORIAK (*Galium verum*) adina kumarina edo gehiago du bere ahizpa zia-belar usaindunak (*Galium odoratum*). “Kumarina” izena gai hori erruz duen tonka zuhaitzetik datorkio, *Dip-teryx odorata*. Zuhaitz horri Guyanako tupi kultura *kumaru* ere deitzen diote. Hortik frantsesezko *coumarou* eta kumarina bera.



BjORN TRAEGER-CC BY SA



MECREDIS-CC BY SA

**Ezkerrean, zia-belar usaindunaren lorea. Eskuinean, tonka zuhaitzaren haziak.**

Landare askok du kumari-na, pozoiz indartsua. Eden hori duen belarra jaten duenak barne odoljarioa izateko arrisku ederra. Besteak beste, gure artean bortu-saiak (*Ruta graveolens*), aingeru-belar landatuak (*Angelica archangelica*), apo-belarrek (*Verbascum* spp.) eta itsabalkiek (*Melilotus* spp.) kumarina puska bat dute; gutxiago, baina larranbiloak ere badu (*Matricaria recutita*). Ez dira, jakina, gure azien-den kuttunak... Larreetan aurrera eta atzera han ibiliko da animalia belarjalea, baina hozkaka motz moztutako gainontzeko belarren artean han geratuko dira tente asko, nabarmen. Kumarinak usain gozoa izanagatik, ugari badago, landareari

mikatz ukitu polita eransten dio, eta hortzetatik babesten du. Batez ere, loreetan eta fruituetan metatzen da.

Gure ahora, ordea, ez da mikatza. Itxuraz tabakoari (*Nicotiana tabacum*) nahasten zaio, ahogozagari, dasta berezia kutsatzeko; batez ere, pipan erretzen denari. Sonatua izan zen, lehengo milurtekoaren amaiera aldera (1995), AEBetan enpresa tabakogile erraldoi bateko buru ohi batek zabaldu zuen berria: “arratoiak hiltzeko” erabiltzen zen gai bat nahasten zitzaion tabakoari, gozatzeko. Alemania izan zen erabilera hori galarazten lehena. Atzetik etorri dira besteak.

Zenbait edariri ere nahasten zaio: muztio, brandi, ardo, vodka, garagardo... AEBetan 1954az geroztik galarazita dago jakieci kumarina eranstea. Alemanian, ordea, hori onartzen dute, eta, besteak beste, *May Wine* ardo berezia zia-belar usainduna erantsiz lurrintzen dute.

Lurringintzan asko erabili izan da, gozo-gozo. Jende askorengan alergiak sortzen dituelako susmoen ondorioz, ordea, gero eta gutxiago.

Alemanian bezala, nonahi kumarina maitatua eta gorrotatua. Izan ere, pozoia dosi kontua besterik ez da... Onetik ere gehiegi kalte. ■

JAKOBA ERREKONDO



## Huntzaren hostotza

HUNTZAK, *Hedera helix*, bi hosto mota ditu. Hazten ari den bitartean, hosto ebakiak, palmatuak edo esku zabalaren itxurakoak zabaltzen ditu. Beste landare batean, harkaitz batean, horma batean, zutiko batean... Beti beste zerbaiten gainean hazten da. Azpian hartzen duenaren gailurrera iritsitakoan, loratu egingo da. Loratzeko, adarretan hosto borobilak edo ia borobilak zabaltzen ditu.

Huntzak torto tontorretan irekitzen ditu loreak, haizeak hara-hona dabilkien polenak poliniza ditzan. Nektar asko dute, ordea, eta horrek erle eta bestelako insektu jendea erakartzen du. Uda amaieran eta udazkenean, loreetan urria den sasoian, mama gozoa! ■